



TIBURTZIO

DONEAREN

PESTAK

Ze gorra den
aslelanekin
dantza ittea
eh? Hala ere
earki itten

LEITZA 2024


44. ZENBAKIA

ezpalak

AZALAREN LEHIAKETAN PARTE HARTU DUTEN KARTELAK



"URTERO PESTAK"
YLENIA
VILLABONA ZABALO



"PESTAK"
AINGERU
ZABALETA ALSUA

Eskerrak eman parte hartu duzuen guziri eta **ZORIONAK**
SAIOA SAGASTIBELTZA, PAULA PERURENA, LEIRE RETEGI,
HAIZEA SAENZ eta JON ARRIZURIETA
"DEUS EZ ETA PESTA" kartelarekin irabazi dutenei.

TIBURTZIO
DONEAREN
PESTAK

ALKATEAREN AGURRA

Kaixo, herritarrok:

Egutegian toki eta garrantzia berezia duten egunak dira pestak, zalantzarik gabe. Egitaraua zein den azaltzen erraza da, baina pestek norberaren eta herriaren aldarlean eragiten duten sententzia, indartsua eta bete izanagatik, zailagoa da azaltzen.

Egunerokoan etenaldia egiteko momentu aproposa ekartzen digute herriko pestek, eta gauza askotan etenaldiak egitea komeni da, komeni denez, baina badira pestetan ere bazter utzi ezin ditugunak.

Bata, garrantzitsua oso, zaintza da. Azken aldian hitzetik hortzera dabilen hitza, Leitzan bezalaxe beste hainbat tokitan. Zaintzaren inguruko ekimenak aktibatzen ari dira gurean, besteak beste Udalak berak sustatutako parte-hartze prozesua, eta baita Zaindu Leitzaldea egitasmo bikaina ere.

Pestak ere, ezinbestean, zaintzarako esparruak dira. Geure burua eta ingurukoak zaintzeko, horrek har ditzakeen molde guztietan, eta baita herria bera eta denona den hori zaintzeko ere.

Berdintasuna ere bada pestak goitik behera busti behar dituen alderdia, ahazterik ez duguna. Berdintasuna egitarauan, ekitaldietan, jokabideetan, irudietan, komunikazioan eta, oro har, denean. Eta, esan beharrik ez dago, berdintasunaren aurka doan ekintza eta jokamolde ororen eta eraso guztien aurkako jarrera.

Eta etenik behar ez duen beste alderdi bat gure hizkuntzarena da. Hizkuntzak dena zipriztintzen du, hizkuntzarik gabe ez dago jarduerarik, eta pestetan ere euskararen espazioa aldarrikatu nahi dugu. Orain arte izan den bezala gure arteko hizkuntza ohiko eta nagusi gisa, eta jarrai dezagun horrela, baina baita batzuetan baztertuago dagoen espazioetan ere, han eta hemen entzuten diren musika doinuetan esate baterako.

Hizkuntza aniztasunerako espazio ederra eta egokia da musika, eta ederra da halaber musika mota eta estilo ezberdinak entzutea eta musika hori hizkuntza ezberdinetan jasotzea, baina ahaztu gabe geurea ere badugula, eta gure bezalako inguruetan tokirik aurkitzen ez badu, nekez aurkituko duela beste inon.

Honela, beraz, zaintzaren, berdintasunaren eta euskararen nahiz euskal kulturaren aldarrikapen txiki hau egin ondoren, besterik gabe, Udalaren izenean pesta ederrak opa dizkizuegu. Zaindu eta gozatu!

Dabid Anaut Peña
LEITZAKO ALKATEA



Leizako Udala



atekabeltz
herrigunea



abuztuak 3 larunbata

REPARTO EGUNA

14:00 Eskelarien bazkaria Aurrera Elkartean

16:00 Auzoz-auzo, Plazaola Aldizkariaren banaketa; trikitilari, txistulari, akordeiolari eta dultzaineroen laguntzaz



abuztuak 4 igandea

UMEEN EGUNA

09:00 Diana txistulariekin

10:00 Korporazio txikiak udal ordezkariekin gosalduko du

10:30 TXUPINAZOA

Ondoren gurpildun zezenen entzierroa

11:00 Aurrera Pilota Eskolako gazteak arituko dira plazan

11:30-13:30 Denok Bat guraso elkarateak antolaturiko "JOKAI" jolasak plazan

17:00 Leitzako konpartsa plazatik abiatuko da

18:30 Aurrerako Dantzari Txikien emanaldia eta ondoren umeen ingurutxo IREKIA plazan

Ondoren goxokiak banatuko dira

20:30-22:30 DJ MIKELTXI

Ondoren Suzko zezena



abuztuak 10 larunbata

PESTA BEZPERA

- 13:00 Manifestazioa plazatik Sare herritarrak deituta
- 13:30 Kantujira Kuxkuxturekin plazatik abiatuta
- 14:30 Kantu-bazkari herrikoia karrapen
- 18:00 TXUPINAZOA eta Plazaola aldizkariko azalen irabazleei sari ematea kxk Beltza eta Udalaren eskutik
- Ondoren Txistulariak, Incansables Txaranga eta Leitzako eta Mendillorriko Konpartsak dultzaineroekin kalejira egingen dute
- 18:30 LA JOEDERA Labetxeko atarian
- 22:00 Suzko zezena
- 23:00 ITZAL
- Ondoren DJ FRESA MORANGO plazako txoznan eta Incansables Txarangaren erronda
- 00:00 Tekno gaua Atekabeltzen



abuztuak 11 igandea

TIBURTZIO DONEAREN EGUNA

- 08:00 Diana txistulariekin
- 09:00 Entzierroa eta behiak plazan
- 10:30 Meza San Migel parrokian
- 11:00 Hamaiketako irekia karrapen
- 12:00 Aurrera Dantza Taldeko EZPATADANTZARIAK plazan
- 13:00 Aurreratik Incansables Txaranga aterako da
- 17:30 Zezenak plazan
- 19:00 Herri Kirolak plazan:

Txinga txapeldunak

KERMAN PEREZ DE HEREDIA /
NEREA EGURROLA

Harria jasotzen

ANE ZESTAU / ITXASO TREKU

Aizkoran

JON REKONDO /
XABAT OLAIZOLA

Aizkoran errekor bila

MALEN BARRENETXEA (15 urte)

Ondoren Goxokiak banatuko dira

- 19:00 Komedia bakarriketa Atekabeltzen;
Maria Blanco eta Iker Plazaolaren
eskutik

- 19:30 Incansables Txaranga eta
buruhaundiak aterako dira

- 21:00 Leitzeko Ingurutxoia nahi duen
guziarentzat plazan

- 22:00 Suzko zezena

- 23:30 ALARMA MOREA eta SODADE


Ondoren Euskal Rock Erradikalaren Gaua
Plazako txoznan eta Incansables
Txarangaren erronda



abuztuak 12 astelehena

PESTA BIGARRENA

- 08:00 Diana txistulariekin
- 09:00 Entzierroa eta behiak plazan
- 11:00 Aparra eskolatan
- 12:00 Pilota partidak Amazabal pilotalekuan:
Lau lurraldeko emakume txapeldunak
GARAI-ERASUN / ZABALETA-GAMINDE
Leitzeko afizionatuak
GOIKOETXEA-ALDUNTZIN / TXOPERENA-SANTAMARIA
- 13:00 Paellada karrapen eta Incansables Txarangaren erronda
- 17:00 TOKAN2 LA POLLA Labetxeko atarin
- 17:30 Zezenak plazan
- 19:00 Aurrerako Dantza Taldearen emanaldia plazan
- Ondoren goxokiak banatuko dira
Bertso poteoa eta Incansables Txaranga eta buruhaundiak aterako dira
- 22:00 Suzko zezena
- 23:30 LOS TENAMPAS
- Ondoren DJ INFERNU plazako txoznan eta Incansables Txarangaren erronda
- 00:00 HIUZZ eta ITHAKA eta ondren DJ PUFF & DJ LABERI Atekabeltzen
- 03:00 Leitzeko Ingurutxoa nahi duen guziarentzako plazan



abuztuak 13 asteartea

PESTA HIRUGARRENA

08:00 Diana txistulariekin

09:00 Entzierroa eta behiak plazan

11:00 Leitzako konpartsa. Ibilbidea: Amazabaletik abiatu, Patxi Arrazolatik igaro eta Herri Aretoan bukatu

13:00 Txakolin dastaketa eta Incansables Txarangaren emanaldia karrapen

16:30 Zezenak plazan

17:30 Bertsolarien emanaldia plazan:

ANDONI EGAÑA / NEREA IBARZABAL / AITOR SARRIEGI /
SAIOA ALKAIZA / JOANES ILLARREGI

Ondoren goxokiak banatuko dira

Incansables Txaranga eta buruhaundiak aterako dira

19:00 Pilota partida profesionalak Amazabal pilotalekuan:

ITURRIAGA-AGIRRE / ARRIETA-MENDIBURU
ARTOLA-ALBISU / PEÑA-MARIEZKURRENA

21:30 Suzko zezena

22:00 Herri aparria plazan

Ondoren Incansables Txarangaren emanaldia eta erronda



abuztuak 14 asteazkena

PESTA LAUGARRENA / GAZTE EGUNA

08:00 Diana txistulariekin

09:00 Entzierroa eta behiak plazan

11:00 Ur txirrista Errekaldeneko atarian

13:00 Aurreratik Incansables Txaranga aterako da

14:30 Gazte bazkaria karrapen

Ondoren bingo musikatua, mojitada eta argazki ateratzea

16:00 Ur txirrista Errekaldeneko atarian

17:30 Gazte jokuak plazan

18:30 3Indarrock Elektrotxaranga

20:00 Goxokiak banatuko dira

Ondoren Incansables Txaranga eta buruhaundiak aterako dira

22:00 Suzko zezena

00:00 ESNE BELTZA

Ondoren DJ ZAZE plazako txoznan eta Incansables Txarangaren erronda

02:00 DJ REMY Atekabeltzen



abuztuak 15 osteguna

PESTA BOSTGARRENA

- 07:50 Gazte gaupaseroen argazkia
- 08:00 Diana txistulariekin
- 09:00 Entzierroa eta behiak plazan
- 10:30 Leitzako konpartsa. Ibilbidea: Herri Aretotik abiatu, alde zaharretik igaro eta herrira jaitsi. Ondoren, Herri Aretoan bukatu
- 12:00 Herri kirolak plazan:
Aizkoran
IGOIN PIKABEA-JON ZALDUA /
OIER MITXELENA-BEÑAT SENOSIAIN
- 13:00 Aurreratik Incansables Txaranga aterako da
- 14:00 Jubilatuen bazkaria
- 14:30 Aurrerako bazkideen bazkaria elkartean
- 17:30 Entzierroa eta ondoren zezenak plazan
- 19:00 Helduen Ingurutxoia plazan
- Ondoren goxokiak banatuko dira
Incansables Txaranga eta
buruhaundiak aterako dira
- 20:00 TRIKIDANTZ
- 22:00 Suzko zezena
- 23:00 TRIKIDANTZ
- Ondoren "POBREDEMIE" Incansables
Txarangarekin



PROGRAMACIÓN DE FIESTAS DE **SAN TIBURTZIO**

3 de agosto sábado DÍA DEL REPARTO

- 14:00 Comida en el Aurrera
- 16:00 Reparto del programa por los barrios acompañados por los músicos

4 de agosto domingo DÍA DEL NIÑ@

- 09:00 Diana
- 10:00 Almuerzo de la corporación txiki.
- 10:30 CHUPINAZO
- Después encierro con toros de ruedas
- 11:00 Partidos de pelota a cargo de la Escuela de Pelota Aurrera
- 11:30-13:30 Juegos infantiles a cargo de la asociación de padres y madres Denok Bat
- 17:00 Comparsa de Gigantes desde la plaza
- 18:30 Actuación de los dantzaris txikis del Aurrera e Ingurutxo abierto
- Después reparto de caramelos
- 20:30-22:30 DJ Mikeltxi
- Después Toro de fuego

10 de agosto sábado VÍSPERA de FIESTAS

- 13:00 Manifestación desde la plaza convocada por Sare
- 13:30 pasacalles a cargo de Kuxkuxtu
- 13:30 Comida organizada por el Club de Jubilados
- 14:30 Comida popular amenizada con cantos en el karrape
- 14:30 Comida de l@s jubilad@s
- 18:00 Chupinazo y entrega de premios.
- Después pasacalles con charanga, txistularis, gaiteros y la comparsa de gigantes y cabezudos.
- 18:30 La JOEDERA
- 22:00 Toro de fuego
- 23:00 Itzal

- Después DJ Fresa Morango en la txozna de la plaza y Incansables Txaranga
- 00:00 Noche tecno en el el Gaztetxe Atekabeltz

11 de agosto domingo SAN TIBURTZIO

- 08:00 Diana
- 09:00 Encierro y vacas
- 10:30 Misa en la parroquia San Migel
- 11:00 Almuerzo popular en el karrape
- 12:00 Actuación de los ezpatadantzaris del Aurrera
- 13:00 Charanga Incansables
- 17:30 Vacas
- 19:00 Deporte Rural
- Después se repartirán caramelos
- 19:30 Incansables Txaranga y cabezudos
- 21:00 Ingurutxo
- 22:00 Toro de fuego
- 23:30 Alarma Morea y Sodade
- Después noche Rock Radical Vasco e Incansables Txaranga

12 de agosto lunes

- 08:00 Diana
- 09:00 Encierro y vacas
- 11:00 Espuma en las escuelas
- 12:00 Partidos de pelota a mano en el frontón Amazabal
- 13:00 Preparación y degustación de paellas en el karrape
- 13:00 Ronda de Incansables Txaranga
- 17:00 Tokan2 La Polla
- 17:30 Vacas
- 19:00 Actuación de los dantzaris del Aurrera
- Después se repartirán caramelos y Incansables Txaranga y cabezudos
- A la misma hora Bertso-poteo



22:00 Toro de fuego

23:00 Los Tenampas

Después DJ Infernu en la txozna de la plaza e
Incansables Txaranga

00:00 Conciertos y DJ en Atakabeltz

03:00 Ingurutxo

13 de agosto martes

08:00 Diana

09:00 encierro y vacas

11:00 Comparsa de gigantes y cabezudos

13:00 Degustación de txakoli y actuación
de Los Incansables en el karrape

16:30 Vacas

17:30 Bertsolaris en la plaza

Después se repartirán caramelos

19:00 partidos de pelota profesional en el
frontón Amazabal

21:30 Toro de fuego

22:00 Cena popular

Después Incansables Txaranga

14 de agosto miércoles DÍA DE LA JUVENTUD

08:00 Diana

09:00 Encierro y vacas

11:00 Tobogán de agua

13:00 Los Incansables

14:30 Comida de los jóvenes

Después Bingo musical, mojitada y foto

16:00 Tobogán acuático

17:30 Juegos

18:30 3Indarrock Elektrotxaranga

20:00 se repartirán caramelos

Después Incansables Txaranga y cabezudos

22:00 Toro de fuego

00:00 Esne Beltza

Después DJ Zaze e Incansables Txaranga

02:00 DJ Remy en Atekabetz

15 de agosto jueves

07:50 Foto de l@s gaupaser@s

08:00 Diana

09:00 Encierro y vacas

10:30 Comparsa de gigantes y cabezudos

12:00 Deporte rural

13:00 Incansables Txaranga

14:30 Comida de soci@s del Aurrera

17:30 Encierro y vacas

19:00 Ingurutxo

Después se repartirán caramelos e Incansables
Txaranga y cabezudos

20:00 Trikidantz

22:00 Toro de fuego

00:30 "Pobredemí" con la Charanga
Incansables



OHARRAK


- 1 UDALAK ez du ZEZENETAN gerta daitezkeen istripuen erantzunkizunik hartzen.
- 2 EGITARAUA borondatearen truke banatzen da. UDALEAN eta LIBURU-DENDETAN salgai ere jartzen da reparto eguna eta gero.
- 3 ZEZENETAN, animaliak ez ukitzea eskatzen da eta ihesbidea errazagoa izan dezaten, hesien gainean inor ez esertzea eskatzen da. Ukuilura doan bidean ere, kontuz ibiltzea gomendatzen da.
- 4 16 urtez azpikoek debekatua dute zezenetan ateratzea.
- 5 Arratsaldeetan, musika taldeek muntai lanak behar bezela egin ditzan, oholtza libre utzi.
- 6 Antolatzaileak ez du bere gain hartuko zezen suzkoan gerta litezkeen erredura edo bestelakoen erantzunkizuna.
- 7 PAELLA prestatze eta jatea:
 - Aurten ez da lehiaketarik izanen.
 - Nork bere SUA eta OSAGAIK eraman behar ditu sukaldatzeko.
 - Bertan bazkaltzeko aukera izanen denez, urtero bezela, mahai eta aulkiak bertan izanen dira erabilgarri.
- 8 Antolatzaileak, ez ditu egitarauko ekitaldi guztiak bere gain hartzen. Horiek jende askoren borondatezko lanari esker lortu dira.
- 9 Antolatzaileak, ez du bere gain hartuko umeentzako aparrak sor litzakeen alergien erantzukizuna.

PLAZAOLA ALDIZKARIAREN ANTOLATZAILEEN OHARRAK


- Plazaola Aldizkariaren antolatzaileak (Aurrera Kirol Elkarteak) ez du zertan ados egon argitaratzen diren idatzietako iritziekin.
- Lanak bidaltzen dituztenek beren izena jakinarazi beharko diote aldizkariaren antolatzaileari; sor litezkeen legezko arazoek erantzukizuna idazkien egileena izanen delarik
- **Gure eskerrik zintzoenak aldizkari hau osatzeko beren lanekin lagundu duten idazle/egile guztiei, azalaren lehiaketan parte hartu dutenei eta baita ere argazkiak utzi dizkiguten Miel Mari Elozegi Luze, Xabier Arraras, Mallo Agirre eta Juan Mari Zabaleta Sorori. Bejondeizuela denei!**

PLAZAOLA LEITZAKO ALDI ZKARIA

44. ZENBAKIA



"ASPERTZEKO BETAIK EZ" NAIARA JUANIKORENA MARIEZKURRENA-ren lana izan da
16 urtetik beherakoen artean irabazlea
ZORIONAK



"ITZALAK ITZALTZEN"
LIHER FERNANDEZ ZUBELDIA



"ABUZTUKO ELKARTOKIE"
LIHER FERNANDEZ ZUBELDIA



"TIBUR PEST"
IZAR ETXEBERRIA VILLABONA

LEITZA 2024

44. ZENBAKIA

Kaixo leitzar,

2024ko San Tiburtzio pestak heldu dira, eta Aurrera K.E.-ko zuzendaritzatik pozik gaude une berezi hau zuekin partekatzeagatik.

Aurreko hilabeteetan gogotsu aritu gara lanean, eta elkarteko kide guztien ahaleginari esker, gure proiektuak aurrera eramatea lortu dugu. Harreman estua izan dugu komisiio desberdinekin: txirrindulariak, dantza taldea, pilota eskola, futbol taldea, etxeko komisiioa, BTT, konpartsa, Mendibil mendi taldea eta krosa, besteak beste. Talde hauek dira Aurreraren hezurdura eta arima, eta beraien denbora eta konpromisoa ezinbestekoak dira gure helburuak lortzeko.

Orain San Tiburtzioko pesten txupinazotik gertu gaudela, gure txupin propioa bota beharko bagenu, Pilota eskolak lortutako garaipenei, futbol taldeko gazteen maila igoerari eta txirrindulari taldeari eskainiko genieke Aurrera elkartearen izena lau haizetara eramateagatik. Hala ere, ale honetan ezin aipatu gabe utzi daitezkeenak Pestetako Komisioko kideak dira, herri mailan egiten duten lana zinez garrantzitsua baita: Aurreraren izena etxez etxe eramaten baitute. Urtez urte gure esku artean dugun aldizkaria irakurtzeko hilabeteetako lana eta konpromisoa hartzen dute. Hortaz, aurtengo hitzaurre honetan gure eskerrik beroenak helarazi nahi dizkiegu lerro xume hauen bitartez.


Beste urte batez, euskararekin dugun lotura eta lana "Bai euskarari" ziurtagiriaren bitartez irudikatzen da. Bestalde, Aurrera K.E.-k herritarrei pestetan eta urteko 365 egunetan errespetuzko jarrerak eraman ditzatela eskatzen die, sexu askatasuna eta sexu eraso gabeko egunak izan daitezela.

Amaitzeko, Kirola eta Kultura balio ukaezinak dira Leitzarentzat, eta guztion artean landu behar ditugu. Beraz, Aurrera K.E.-tik elementu horiek babesten eta sustatzen jarraituko dugu, gure komunitate gisa batzen eta gure herriaren sustraiekin lotzen gaituzten balioak direlako.

Gora San Tiburtzio!

AURRERA KIROL ELKARTEA





YOSTUNEK

Lehengo emakumeak majiña bat lan egiten zuten zarpa konpontzen. Yostorrazari hari albiñoa sartu eta galtzari adakik eman, atorraren zarratak konpondu, arropa batek aureak hautsiak bazeuzken aurea berritu eta atzea aprobetxatu... Eta txoatillari bueltak eman ez artezko haria ere egiten zuten eta gero galtzatorrazaz puntua eginez galtzerdiak egiten zituzten. Eta baita artezko lastiku bero askoak ere egiten zituzten.

Hobekiago yantzi nahi zenean berriz yendeak yostunetara yotzen zuen. Orduan ere nor edo nor yonzen zen Tolosara edo Iruñera arropak eroatera baina gehienak herriko yostundegietan egiten zituzten beren yantziak. Herriko yostunek egiten zituzten galtzak, atorrak, txalekoak, gonak, soinekoak, kaltzontzi-loak, braga puntilledunak, sostenak eta ezkontzetako arreoak ere bai. Orduan etzen yosteko elektrika makinari eta pedalari hankaz eraginez egiten zituzten yantziak. Ikus dezagun zenbat yostun zeuden Leitzen orain dela hirurogei ta hamar urte:

Eta garai hartan bazen Leitzen yosteko makinak saltzen zituena ere: Plácido Echeverría. RELOJERÍA. Máquinas coser y bordar "ALFA".¹

Mitxelisteneko Ramona Bengoetxea yosten aritzeaz gainera yosten erakusten ere aritzen zen. Leitzetik ezeze Aresotik, Gorrititik, Ezkurretik, Eratsundik, Saldistik eta Labaindik ere etortzen ziren emakumeak yosten ikastera Ramonaren yostundegira. Herri horietako neskek neguan etortzen ziren eta Mitxelistenean bertan egiten zuten yan eta lo aste guzian. Gehienak etxeko labean egindako ogi haundi batekin etortzen ziren. Eta baita ere etxetik ekartzen zituzten banabarra eta gainerako yanariak eta Mitxelisteneko sukaldean prestatzen zuten otordua.

Inaziobarunen Margarita Sagastibelza maestra zen ofizioa erakusten eta yostun asko hezi zituen. Herriko neska asko eta kanpotik ere etortzen ziren yosten ikastera Margaritarengana. Bere ahizpe Maria Jesus ere yostun ona zen.

Arrivillaga Hnas.

Astibia Hnas.

Juanita Azpiroz

Ramona Bengoetxea

Josefina Erviti

Petrita Goñi

Lorenza Largo

Juanita Muñoz

Pilar Ranz

María Jesús Sagastibelza Saralegui

Margarita Sagastibelza

Hermanas Sagastibelza (Dendarinea)

María Viguera

MODISTAS

MODISTAS

MODISTA

MODISTA

MODISTA

MODISTA

MODISTA

MODISTA


INCRUSTACIONES Y BORDADOS A MÁQUINA

MODISTA

MODISTA

CONFECCIÓN DE GÉNEROS DE PUNTO

MODISTA



1. Datu hauek 1947 eta 1955 bitartekoak dira eta garai hartako Leitzeko pestetako programetatik hartu ditut.

Petrita Goñik ere Margaritarekin ikasi zuen yosten eta gero berak jarri zuen yostunen eskola. Honek ere yostun askori erakutsi zien ofizioa. Eta Petrita bordatzen ere aritzen zen. Hemen ikusiko duzue bere lan bat. Bere eta bere senarraren apellidoen eskudoak dotore bordatu zituen. Eta ez zuen edozein oihaletan bordatzen: Basomeneko bordako etxekandreak emandako liñozko ehune erabiltzen zuen bordatuak egiteko.

Arrivillaga ahizpek, Presen eta Ines, Tuteneko herrin aritzen ziren yosten. Presenek ere Mitxelisteneko Ramonarekin ikasi zuen yosten. Hamahiru urterekin hasi zen yosten eta gero bere ahizpe Inesi erakutsi zion ofizioa. Herriko neska asko yoaten zen Tutenera yosten ikastera eta baita ere etortzen ziren Ezkurretik eta Eratsundik. Kastatik kondea da esanera eta hemen ikusiko duzue Presenen alaba Marimiren bordatu bikain bat.

Pilar Ranzek Zaragozan ikasi zuen bordatzen eta makina bat maindire eta oihal bordatu zituen. Berak egin zituen Leitzeko kabalगतको erregeen kapak. Makinaz gainera eskuz ere asko bordatzen zuen. Hemen azaltzen ditugu bere bordatu batzuk.²

Yostunek pestaurrean izaten zuten lanik gehiena. Orduan yoaten zen yendea presaka arropak enkargatzera. Yostunek deustarako betarik gabe ittokarrean aritzen ziren arropak egiten. Gauez eta guzti aritzen ziren baina argiarekin izaten zituzten komediak. Goikoerrotako zentralako deposituan orbelak sartu zirela eta ipurtargia bezalako argia egiten zuten bonbiletan eta askotan kinka argitan ari behar izaten zuten.

Eta yostundegietan hainbeste neska zegoenez mutilek neska surrin ibiltzen ziren. Gaueko eskolako piperra egin eta zeletan egoten ziren neskak noiz aterako ziren yostundegietatik gero neska laguntzera yoateko.

PAXIOANEA

Yostunek behar zituzten telak Paxioaren arropa dendatik erosten zituzten. Denda honetan arropa klase guztietatik edukitzen zuten. Kantabriako "valle del Pas"etik leku askotara zabaldu zen yendea eta herrietan arropak saltzen ibiltzen ziren eta batzuk arropa dendak ere jartzen zituzten. "Pasiegos" edo "paxioak" deitzen zioten. Leitzen denda jarri zutenek ere handik etorriak omen ziren. Juan Gómez eta bere andre Paula Crespo Arredondo herrikoak ziren eta XIX. mendearen erdi aldera etorri ziren Leitzera. Hemen arropa denda jarri zuten eta negozio horrek 2006. urte arte iraun zuen.

BESTE MUNDUAN ORDAINTEKOTAN

Plazaolako trenbidea egitera (1911 inguruan) langile kanpotar asko etorri zen Leitzera. Langile horietako bat yoan zen Paxioanera eta erosi zituen galtzak eta atorra egiteko gaia. Eta esan zuen orduan ez zuela dirurik baina kintzena (jornala) kobratzen zuenean ordainduko zuela. Orduan Paxioaneko nagusiak esan zion beldurtzeko asmoz "Kintzena kobratzen duzunean ez badidazu ordaintzen beste munduan ordaindu beharko didazu". Eta erostunak lasai asko erantzun zion: "Beste munduan ordaintzekotan galtzak eta atorraren gaiaz gainera eman zaidazu txalekoaren gaia ere!"

ASTAITZ

Pilar Ranz Gonzalo

Leitza 1930-2014

Pilar Ranz Leitza jaio zen Zapatean etxean 1930. urtean.

Oinarritzko ikasketak amaitu ondoren, Pilar Zaragozara joan zen akademia batean brodatzen ikastera.

Etxera itzuli orduko hasi zen lanean. Familia bizi zen etxean, gaur egun Lagunartea (garaian, Txatalingonea-Tolarea), tailer-gela bat jarri zuten eta bertan makina bat arreo eta mahai-zapi egiten hasi zen, oraindik ere Leitzako etxe askotan egonen direnak.

Langile nekaezina, mimoz eta interesez lan egiten zuen. Piezak moztu, bainikak egin, oin-puntak, lorez-lore, letraz-letra, makinaren etengabeko triki-trakarekin edo bastidorearen zehaztasunarekin.

Era berean, elizako aldareko mahai-zapi batzuk brodatu zituen, "urrezko hariz" esaten zuten lotsati.

Urte batzuk geroago, Sarrioko batakeren banan-banan brodatu zituen. Aliñean egiten zituzten, eta poltsiko bakoitzean armarria brodatzea eskatzen zioten.

Urte batzuekin, baina ilusio berarekin brodatu zituen Meltxor eta Gasparren jantzien kapak.

Eta bukaerara arte brodatzen jarraitu zuen eta kakorratz-lana, gurutze-puntua... artisau-lanaren bokozioren zortez jabeturik.

Hurrengo orrialdean bordatun argazkik:

² Celia Lanak bere izoa Pilar Ranz buruzko idazlan hau eman dit:



Pilar Ranzen bordatue.



Pilar Ranzen beste bordatu bat.



Marimi Odriozolak bordatue.



Petrita Goñiren yosteko makina.



Petrita Goñiren bordatue.



Inaziobarunen Margarita Sagastibelzaren bordatue.

ATERALDIK ETA IXTORIK

ARROTZGALDA

Lehenago etxerik gehienetan erdisukaldea izaten zen. Horrek esan nahi du sua sukaldearen erdian egiten zela. Baztarreko (enbor bat) haundi bat sartu sukaldera eta haren kontra bota zotzak, adakik eta arrallek eta sua egiten zen. Eltzea suburniarekin yarri eta han egosten zen eguneroko eltzaria. Eta artoa erre ere bai. Ilunabarrean etxeokak suaren inguruan eseri eta kontu-kontari eta ikusi-makusian aritzen ziren.

Enbor batzuk izaten zuten zati bat sukai ona zuena. Sua allatzen zenen leku hortara galda indar haundiarekin ateratzen zen eta gainera soinuarekin: fuuuu! Honi deitzen zitziion arrotzgalda. Arrotzgaldak esan nahi du egun hortan yende asko etorriko dela etxe hortara: auzokoak, ahaideak, tratalarik, kinkilleroak, zamoranoa eta abar. “Hau yenden emana! Arrotzgalda atera da eta gaur direnak eta ez direnak etorriko dire gure etxera!”.

ITXIOLA

Ixtorra berdea zegoela ebakitzen zen abuztuaren azkenetan edo agorraren aurrenetan. Pixko bat eguzkitan lehortzen utzi eta ganbaran sartzen zen. Hau gehienetan belar urte txarra zenean egiten zen. Ne-guan elurraren ertza hazitzen zenean ardiei ekaitz gosea sartzen zitzairen eta pozik yaten zuten. Gero barriñoan ure patu itxiolak ematen zuen egarria asetzeko eta ardiak ongi gelditzen ziren.

ZUHARIE

Garilastoa erre eta hautsei ure bota eta likido beltz-beltza egiten zen. Gero han busti soka eta zurak markatzeko erabiltzen zen, nondik zerratu behar zen jakiteko. Zurak leuntzeko eta zerraz oholak egiteko aurrena zuhariz markatzen ziren.

ZATAGIE

Etxe batzutan eta basolariak izaten zuten zerratokie. Zerratokietan zur haundiak erabiltzen ziren eta mugitzeko haga haundi bat erabiltzen zen. Haga honek zuen izena “zatagie”.

JOXERRAMON ABADENA


Abadearen anaia zen Joxerramon. Horrengatik deitzen zioten “abadena”. Parrandazale amorratue, bihurrie eta axolkabe hutse zen. Behin Leitzeko pestetan ardi larrua bizkarretik jantzi eta lepoan zintzarria lotu eta ardiaren itxura eginez ibili zen. Garai hartako

pestetan bordetan ere ibiltzen ziren eskean eta Joxerramon ere joan zen eskera. Moskor-moskor eginda zebilen Joxerramon eta etxe batean hasi zen nesken atzetik eta neskak gelan sartu ziren. Joxerramon ere bai atzetik eta ordun neskak oben azpian sartu ziren. Hasi zen Joxerramon ere obapean sartu nahian baina neskek aurpegia dena harramazkatu zioten eta kristaberen figurik gabe utzi zuten. Pestak bukatu zirenean Joxerramon joan etxera eta atte han zegoen makilarekin eskailburuan. Attek tiratu zion makilkada eta semeak makila puntetik harrapatu. Asi ziren salan makilari batek punta batetik tira eta besteak bestetik eta atte eskaileran parera allatu zenean Joxerramonek makilari utzi eta atte dinbulike eskailerak behera eroti zen. Behiko eskaileratranpatik attek esa zion: “¿Horren gaxtoa izanen ziñeke, Joxerramon?” Eta semeak erantzun zion: “Ni ahal banu gaxtoagoa!”

AURRETIK LANAK EGINDA

Gero Joxerramon Madrille joan zen lanera. Han urte mordoska bat egin eta hemezortzi urteko semearekin etorri zen etxera. Eta attek esan zion: “Hamazazpi urte ezkondurik eta semeak hemezortzi urte. Hori nola ditteke?” Eta Joxerramonek: “Hori, aurretik lanak eginda”.

ASTAITZ



DENBORA PASAK



Bilatu pestakin lotutako 8 hitz:




- Zezenak
- Parranda
- Bertsolarik
- Kirolak
- Buruhaundik
- Musika
- Dantzarik
- Erraldoiak



Kode ezkutua lortzeko gai za?

A word search puzzle using symbols. The symbols are arranged in a grid and correspond to the letters A through Z. The symbols are: A: eye; B: X; D: swirl; E: hook; F: circle with dot; G: heart; H: star; I: square; J: dot; K: diamond; L: triangle; M: crescent; N: circle with dot; O: sun; P: caret; Q: square with cross; R: house; S: flower; T: clover; W: wavy line; X: lightning bolt; Y: asterisk; Z: heart.

Below the symbols are several rows of circles, some containing symbols, representing a code to be deciphered. The circles are arranged in a grid-like pattern with some symbols placed inside them.



NAIARA JUANIKORENA
MARIEZKURRENA


KANIKA ARTEAN

*Kafe, egunkari ta elkarrizketen artean
 orri zuriak hitzez goxatzen ditut,
 eskuz idatziak,
 arkatzez jantziak...*

*Baina gaur, sorpresaz,
 aspaldiko istanteen oroimina
 ondoan eseri zait,
 eskola xahar hartako apalean
 jasota gelditu zen nostalgia,
 begietara begira,
 barrenak astindu dizkit.*

*Klarion usaina,
 gaxta-gaxta egindako liburuak,
 tamaina desberdinetako margo ale batzuk,
 nire ikaskideak konplizitatez gainezka,
 elkar zainduz,
 kuadernoak ta konpasak konpartituz,
 etxerako lanak batera eginez,
 norbaiti oparitutako atlasarekin
 bidaiak eginez,
 eguneroko lezioa galdetzerakoan
 gu denon urduritasuna
 airean gailenduz.*

*Nire gogamenean gordeak ta zainduak
 errekreotako irribarreak
 soka saltoan, txingoan,
 kanika ta kromo artean
 txirrinak, bapatean, jo arte...*



OLERKIA: GARBIÑE SAGASTIBELTZA LIZARRAGA
 ILUSTRAZIOA: AINARA SARALEGI SAGASTIBELTZA

GUDARA GARAMATZATE

Europako Parlamenturako ekaineko hauteskundeek mezu argi bat bidali digute: europarrok ez dugu gudarik nahi. Ukrainakoa bukatu egin behar da eta ardura politikoa dutenek lehenbailehen eman behar dituzte horretarako urratsak. Frantzia Macroni eta Alemanian Scholzi ultraeskuina aise gailendu zaie eta arrazoi nagusia Ukrainako gudan datza: aipatu bi presidentek -Macron bereziki- guda indartzeko etengabe urratsak ematen aritu dira eta ultraeskuinak, aldiz, aurkako jarrera erakutsi du.

Gudaren aurkakoak irabazle

Ultraeskuinak ezkerren lekua hartu du arazo honetan. Historikoki ezkerre guda guztien aurka nabarmendu izan da, eskuina gudazale azaldu den bitartean. Baina aspaldi honetan ezkerre oro har ez da mobilizatu -Irakeko gudaren garaian manifestazio itzelak egin ziren- eta ez du aurkako jarrera tinkoa erakusteko ekimenik gauzatu. Ultraeskuina tinkoagoa izaten ari da bakearen frontean.

Desideologizazioa egungo gizartean handia da eta hauteskundeetan jende gehienak hautua ez du ideologiagatik egiten. Herritarrek beren eguneroko arazoei erantzun positiboa ematen diena saritzen dute eta, kasu honetan, Ukrainako guda amaitzearen aldekoak izan dira sarituak. Frantzia eta Alemania aipatu ditugu zigortu bezala, baina Belgika eta Holanda ere erants ditzakegu

zerrendara. Viktor Orban Hungariako presidentek, ultraeskuindar etiketa duen eta gaur egun guda bukatzearen aldeko ahots tinkoena Europako Batasunan, bere herrialdean irabazi egin duela ahaztu gabe. Gogoratuko dugu ere gudaren aurka azaldu eta tirokatua izan den Robert Fico Eslovakiako presidentek %15etik %24ra igo dituela bere botoak.

Elite ekonomikoak izututa Errusiaren garaipenarekin

Macronek hartu duen jipoiaren ondoren dimititu egin beharko luke, koherentzia politikoagatik. Baina hori egin beharrean Parlamentua desegin du. Galera handiaren erruduna bera ez balitz bezala. Scholzi ere ez diogu ardura politikoa utziko di-tueneko hitzik entzun. *“Errusiak ezin du guda hau irabazi”* errepikatzen digu behin eta berriz Jens Stoltenberg NATOren buruak. *“Europa hiltzeko arriskutan da”* eta *“Errusia da Europarako mehatxu handiena”* diosku Macronek. Zer esan nahi du honen guztiak? Ba, herritarrek bidali dieten mezuari baino garrantzia handiagoa eman dietela guda bultzatzeko agindua eman dieten aurpegigabe horiei, inoiz hauteskundeetara aurkezten ez diren baina ederki agintzen duten elite ekonomikoei alegia. Hauen interesak hobeki ulertuko ditugu BlackRock putre-funtsak dagoeneko Ukrainako lur aberatsen %24 eresia duela jakinda.



ARGAZKIAREN HELBIDEA: <https://chequeado.com/wp-content/uploads/2023/02/ucrania.jpeg>

Bakea hitza Europako Batasunako politikoen ezpainenatetik desagertu egin da. Von der Leyen eta Borrelli ez zaie hitz hau sekula entzuten. "Bake" hitza "guda" hitzarekin ordeztu dute. Izan ere, Errusia Ukrainan lortzen ari den garaipenarekin elite korporatiboek egungo sistema ekonomikoa arriskutan ikusten dute eta Errusiako sistema ekonomikoak neoliberalak ordezkatzeko ote duen beldur dira. Errusian estatuak kontrolatzen baitu ekonomia neurri handi batean, oligarka ugari botereguneetatik bota eta gero. Errusiak gero eta adiskide gehiago dauka munduan -eta Europako mendebaldean ere- eta bere sistema zabaltzea aurreikusten dute guda irabaziko balu. Europako mendebaldeko elite ekonomikoak izututa daude.

Probokazioak eta pazientzia

Europako Batasunako arduradun politikoez guda honetan jauzi kualitatiboak ematen jarraitzen dute. Berriki Errusiari 50.000 milioi euro ostu eta Ukrainara bidaltzea erabaki dute armatan inbertituak izan daitezten. Poloniak eta Errumaniak Ukrainarekin dituzten mugetan F16 gerra-hegazkinak pilotzen hasi dira. Vladimir Putinek ekainaren 14an bakea negoziatzeko hasteko proposamena egin zuen eta Suitzian Zelenski- ren inguruan bildutakoek aho batez errefusatu zuten. Ez dute bakearen mezua entzun nahi. Gudarako pres-takizunak hor jarraitzen du eta Europa osora zabal liteke epe motzean.

Hamaika dira Errusiari dagoeneko egin dizkioten probokazioak. EBko politikoez isilean gordetzen badituzte ere, aspaldi ari dira egunero misilak Errusiako lurretara bidaltzen zibilen heriotzak eraginez. Ukrainako armadaren bonba hauek ez dute helburu militarrik izaten. Bi urte luze hauetan hildako zibilen kopurua milatik gorakoa da. Azken boladan, frontean errusiarrek erraz nagusitzen ari direnez, areagotu egin dituzte zibilen gaineko bonbardaketak. Moskun 150 errusiar hil zuten kontzertu batean. Kremlinera droneak bidali dituzte. NATOk soldaduak hasi dira Ukrainara bidaltzen. Misil nuklearrak detektatzeko radar estrategikoetara misilak hiru aldiz bidali dituzte. Errusiarren pazientzia handiagatik dagoeneko ez dugu guda Europa osora hedatuta, baina pazientzia noizbait agortu egingen zaie. Erantzunen dutenean guda errusiarren erruz piztu dela entzun eta irakurriko dugu komunikabideetan. Euskaldunok ere inplikaturik gaude, Pedro Sánchez presidenteak bete-betean sartu baikaitu guda honetan armak eta dirutza Ukrainara bidaltzean.

Komunikabideen inplikazioa

Komunikabideak ere inplikaturik gaude giro gudazale honen susperraldian. Ados daudelako edo beldurragatik, ez dira bakearen aldeko mezuek igortzen

ari. Hortaz gain, zabaltzen duten informazioa desitxuratu egingen dute. Lerro hauek idatzi bitartean ETBk esan digu Errusiak ez duela parte hartu Suitzian egingen ari diren "Bakearen Gailurra" oker deitutako horretan. Ahaztuta edo, ez digu esan Errusia ez dela gonbidatua izan. Errusiarrak ez direla inplikatzeko bakearen dinamikan pentsatzera eraman nahi gaitu entzuleak.

Aleksandar Vucic Serbiako presidentek esan berri digu "mendebalde" deituak uste duela Errusiak sekula ez duela bonba nuklearrik erabiliko. Ez duela adorerik izanen. Baita NATOk agintariek Errusiaren aurka garaipen erraza ikusten dutela ere eta horrek bultzatzen dituela NATO eta EB guda indartzera. Berak garbi ikusten du hilabete gutxi barru guda Europa osora zabalduko dela eta, hori dela medio, Serbiako petrolio eta elikagaien erreserbak handitzeari ekin dio.

Guda Europa osora zabalduko?

Hil ala bizikoa bihurtu dute guda hau, eta galtzailea desagertu egingen da. Errusiak galtzen badu, bere baitan sendo txertatuta dauden nazio eta errepublikak puzzle baten piezak bezala sakabanatuko dira. NATOk galtzen badu desagertu egingen da eta Europako Batasunaren politika eta politikoez goitik behera aldatuko dira. Ukrainako guda hau gaur egun existentziala bihurtu da bi aldeentzat.

Mundu osoa azaroaren 5era begira dago. Egun horretan hautatuko baita AEBetako hurrengo presidentea. Bitartean garbi dago Errusiak gogor erantzun dezan Bidenek haren gaineko presioa handitzen jarraituko duela. Hainbat analistak dioenez, Errusiak gogor erantzunen balu Bidenek hauteskundeak bertan behera utziko lituzke eta presidente izaten jarraituko luke nahi adina denboran, Zelenskik Ukrainan egin duen bezalaxe. Trump faboritoak ezin lezake deus egin neurri hori ekiditeko. Errusia guda aise irabazten ari da eta ez dirudi estatubatuarrek bilatzen duten erantzun gogor hori egingen duenik. Baina soka oso tenkatuta dago eta inork ez daki noiz hauts litekeen.

Kasu guztietan irabazle suertatuko dena industria militarra izanen da. Herritarrok beti galduko dugu. Diru asko ziur. Zenbat bizi? Espero dezagun Errusiak orain arte erakutsi duen pazientziari eustea eta guda Ukrainatik Europa osora ez zabaltzea.

NERE-KAYOLA
2024-06-28

NAHIA ETA NEREA, Leitzeko dantza-erakustunak eskolaz kanpoko ihardueratan



Joan zen ekainaren 7an Leitzako gaztetxoek urteroko kurtso bukaerako dantza-saioa eskaini eta eskolaz kanpoko ihardueratan aurtien ikasitakoa jendearen aurrean erakutsi zuten. Plaza goraino bete zen dantzari eta ikuslez, eta giro ezin hobea sortu zen bertan. Jendea harrituta gelditu zen ikuskizunarekin,

zinez ederra izan zelako, eta gaztetxoek maila zoragarria erakutsi zutelako. Ume edo gaztetxoekin lanean aritu den edozeinek jakinen du, noski, ez dela erraza hori lortzea. Zalantzarik gabe, lan ederra egin zuten hori prestatzen aritu zirenek. Hantxe zeuden bada, aurtengo erakustunak: Nahia eta Nerea.



Zorionak, pare! Aurkeztuko al duzue zuen burua?

NEREA: Nerea Aranberri Zubiri nauzue, aurtengoan 21 urte egin dituen leitzar gaztea.

NAHIA: Nahia Escudero Orbegozo naiz, 24 urteko Leitzarra

Zertan aritzen zarete zuen egunerokoan?

NEREA: Txikitako ametsa errealitate bihurtzeko bidea hartuta, Donostian ikasten ari naiz azken urteotan. Uste baino azkarrago igaro zaizkit Haur Hezkuntzako Gradu lehengo hiru urteak, eta azkenengoa ate joka dator.

Horrez gain, aurtengoan irakasle izateko grina praktikan jartzeko aukera eskaini zidan Nahiak. Gisa honetara, nire bi zaletasun haundi uztartzeko aukera izan dut: irakaskuntza eta dantza, eta egia esan, niretzako bizitzaren opari eder bat izan da.

NAHIA: Ttikitatik galdetzen dizue ea haunditan zer izan nahi dozon ezta? Nik oaindik galdera oi itten diot nere burui.

Elkarrekin zer ikusirik ez duten bi lan dittot, bata ikasitakoa, Tolosan Fisiiterapia eta erreabilitazioko klinika pribatu baten bi urte damakizkit, eta bestalde, pasio bezela ttikikin dantza erakusle bezela 3 urtez.

Noiz hasi zineten dantza erakusten?

NEREA: Ni berria naiz lan honetan, ikasturteko azkeneko hiruzpalau hilabeteotan hasi nintzen. Baina esperientzia ahaztezina izan da, ilusioz begiratu baitiot memento bakoitzari.

NAHIA: Egie esan nere hasiera ez zen dantzakin izan. 15 urtekin guraso talde bateri Patinatzen erakusten hasi nintzen, horren ariora eskolako guraso elkartek eskolaz kanpoko jardueretako erakusle bezela hasi nintzen, jarduera ezberdiñetan ibili naiz 8 urtez eta azken 3 urtek euskal dantzakin

Zenbat dantzari irten ziren kurtso bukaerako emanaldian plazara? Zein adinetakoak ziren?

NEREA: Haur Hezkuntzatik hasi eta Lehen Hezkuntzako azken urtera artekoei irakasten diegula kontuan hartuta, 105 dantzaritara iritsi ginen, horrek eskatzen duen lan guztiarekin. Hala ere, ederra da Leitzan dantzak etorkizuna izango duela ikustea,

NAHIA: Azken urtetan ttikin zenbatekoa igotzen joan da. Lenbiziko urten 55-65 ttikin tarten ibili zen bigarren urten 70-80 hartan eta azken urte honetan izugarritzko BOOM- e euki do eta 110 ttiki elkartu die, dena den, denai ez zaioa plazara ateratzea gustatzen eta plazako ekitaldin 105 dantzari izandu ziren

Lan zaila izan al da saioa prestatzea? Zenbat denbora behar izan duzue horretarako?

NEREA: Erraza ez, hainbeste umeren dantzak pentsatu, haien gaitasunetara egokitu, koreografia berriak prestatu, etab. egiteak makina bat buru-hauste dakartzatza. Azken txanpa honetan bi irakaslek hartu genuen nolabait ikasle-taldean gidaritza, baina oraintsu arte ikasturte osoan zehar lan honetan bakarrik jardun da Nahia bera, eta txapela kentzeko lana egin du.

NAHIA: urtea luzea da, baina hasieratik hasi behar da lanean. Astean ordu bat izanik astez aste ikasitakoa ere batzuetan ahaztu egiten da. Egie da Leitzeko ttiki guztik, pasioa duela dantzakiko eta lan asko itten duela asten zehar, pauso berrik ez ahazteko, hobekio ateatzeko, teknika ikasteko, etab.

Esker oneko lana al da dantza-irakaslearena? Laguntzarik izaten al duzue?

NAHIA-NEREA: Lehen esan bezela urtea luzea da, eta horrenbeste ikaslekin egun batzuk bestek baño hobek izaten diela baño ttiki gutik transmititzen dizuen kariñoa, beraien pasioa eta azken eguneko jaialdin ondoren, merezi do denak.

Noiz ensaiatzen duzue?

NEREA-NAHIA: Joan berri den ikasturteko entsegu guztiak asteko bi egunetan bereizita egin izan ditugu, lau talde astelehenetan eta beste biak, berriz, ostegunetan. Astelehenetan Lehen Hezkuntzakoak eta ostegunetan eskolako txikienak, Haur Hezkuntzakoak, hain zuzen.

Zer dantza eskaini zenituzten plazan kurtso bukaerako dantza-saioan?

NEREA-NAHIA: Aurrekuarekin hasi ginen, Korrontzi taldearen “Aupa Maurizia!” abestiarentzat Nahiak berak sorturiko koreografia batekin eman genion segida ekitaldiari, Lehen Hezkuntzako 4. eta 5. mailako haurren eskutik. Segidan, dantzari txikienak atera ziren, eta Joseba Tapiaren fandangoa eta Kantu Kolore taldearen “Zapia” dantzatu zuten.

Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoen txanda iritsita, Esku dantza. Jarraian, talde berak, Leitzaren izaera markatzen duen eta hain maite dugun Ezpatadantza dantzatzeko aukera zoragarria izan zuten, eta nola aprobeztatu ere! Pesta egunerako fitxaketa berriak baditugu jadanik!

Ondoren Lehen Hezkuntzako 3. mailako haurrak, Korrontzi taldearen “Portusalda” abestiarekin sorturiko koreografia dantzatu zuten eta hauek akitzean, 4. eta 5. mailako ikasleak Neomak taldearen “Ilargi Berriak” abestiarekin burutu zuten haien bigarren dantza.

Segidan, ikasturteko zaharrenek Kalakan taldearen “Sagarra Jo” abestia dantzatu zuten, eta emanaldiari amaiera emateko, ikas-talde guztiak batera plazara atera eta “Orpo Punta” dantzatu zuten. Itxura ederra hartu zuen plazak!

Neska pila eta mutil gutxi ikusi genituen dantzan. Normala al da hau? Arazoa izan daiteke etorkizunean dantzei eusteko?

NEREA-NAHIA: Bai, pena da mutilen presentzia oso txikia dela ikustea. Izan ere, dauden gutxi horiek, bakarrak izaten direlarik, dantza uzteko hautua egin dezakete. Hortaz, aukera hau aprobeztatu nahi genuke dantzari izateko grina duten mutil horiei guztiei gure atea irekita daudela eta besoak zabalik hartuko ditugula esateko! Zuek ere behar eta nahi zaituztegu!

Lehen ez ziren mutil gehiegi, eta orain aldiz, lehen-goak izatea da geure nahia. Nola erakarri ordea mutilak dantzara, beste zenbaiten artean, futbolaren hegemonia hor egonda? Behar bada gure herrian urteetan zehar dantzarekiko izan dugun interesa galduta egin zaigu? Umetan, taldeak indar handia du, eta barkatasunak eragin dezake atzera egitea. Hori horrela izanik, koadrilan dantzan hastea lagungarria izan

daiteke, eta lehen pausoa dantza probatzea da, eskolaz kanpoko ihardueteraako aukeren artean, “Euskal Dantzak” aurkitu eta gurutzeta jartzea.

Dantzei eusteari dagokionean, mutilen eskasiak dantzetan eraldaketak eragingo ditu, ingurutxoak, kasu, beti izan baita neska eta mutilen artekoa.

Nola ikusten duzue dantzaren egoera Leitzan?

NEREA-NAHIA: Oraingoz behinik behin ez gaude kezkatzeko moduan, bada eta segidarik. Helduon dantza taldea berrogei dantzari inguruk osatzen dugu, gazteen zerrenda ere ez da inolaz ere urria, eta txikienetan ere heldu zaigu erreleboa, aurtan ehun eta bost ume izan ditugularik. Orain arteko bide opa-roari jarraituz gero, izanen da urte askoan zehar Leitzako plazan dantza saio ederrik, ez apuratu!

Zein dira zuen gustoko dantzak? Eta dantzarienak? Nola egiten da txikienei erakusteko?

NEREA: Hainbesteko aukeraren artean, zaila da bizpahiru dantza aukeratzea, baina niretzat Gipuzkoako arin-arin eta fandangoa, Ezpatadantza eta Luzaidoko bolant dantzak dira, besteak beste.

Fandango eta arin-arina izugarri gustatzen zaizkit, artea iruditzen zait. Eta berriki izan dut herrian bertan Gipuzkoako pausook nire oinetan dantzatu eta ametsa betetzeko aukera paregabea. Ezpatadantza ere zinez gustuko dugu Leitzarrok. Ez dakit dantza bera dantzatzea dugun gustuko edo haren baitan izaten den giroa gozoa bizitzea, baina pentsatzen hasita, batak bestea ematen du. Orain arte plazako eserlekuetatik bizi izan dut pesta eguneko hamabietako zita, baina egunen batean barrutik bizitzeko aukera izanen da, akaso! Herriko plazan dantzaturiko Bolant dantzak ere ilusioz gogoratzen ditut, kolore bizi bezain ederrak soinean.

Azken lerrootako ilusioari eutsiz irakasten diegu mimoz txikienei dantzan.

NAHIA: Bakoitzei dantza ezberdiñek gustatzen zaizkio, estiloa re ez da berdiñe izaten, baño uste dot Leitzar batentzat berezina, ezpata dantza dantzatzea izaten dela Abuztuk 11an.

Jakin beharra da bakoitzei egokitzen, ezin dozo 3 urteko batekin edo 12 urteko batekin berdina erakutsi eta pausu berdiñen erakutsi. Denboa behar da, pazientzia, baño ttikik oso errex itten due dena.

Pestak gainean ditugu. Zer plan duzue pestetarako?

NEREA: Ez gaude gogo faltan! Ongi bidean, nire bigarren aldia izanen da aurtengoa helduen taldean, dantza utzita pare bat urte egin baintuen, eta lehenengo



txandan bezainbeste disfrutatzea lortuz gero, ederra izanen da. Aurtengoan ere pesta egunean eta pesta bigarrenean, urtero legez, bertaratu plazara, zer ikusia izanen da eta!

NAHIA: Pestak disfrutatzeke daude, asko dantzatzeko ideakin bai plazan bai plazatik kanpo, launekin eta matte dun jendekin denboa pasa eta herriko giroatatzeko ideakin

Ikusiko al zaituztegu dantzan?

NEREA: Bai. Izan ere, haur ginela amestutakoak egi bihurtzeko aukera dugu. Dantzak alor askotako jakinduria transmititu digu eskola txiki bat bailitzan; hortaz, dantzari jasotakoa ematea ez dago soberan.

NAHIA: Noski, dantza pasio izanik hortxe izango naiz dantza saio guztitan


Besterik?

NEREA-NAHIA: Aukera hau aprobetxatu nahiko genuke plazara zein beste edozein txokotara gure saioak ikustera bertaratzen den ikusle leial horri hitz batzuk eskaintzeko. Izan ere, zuen babes paregabea jaso izan dugu. Zuen presentzia hutsak egiten gaitu dantzari, norbera hazi egiten baita plaza betetzen duten txaloak gure belarrietara heltzean. Eskerrak eman, bestalde, kalean gelditu eta zuen zorion-mezu

horiek luzatzeagatik. Eta nola ez? eskerrik asko unerik ederrenak argazki eta bideoetan hartzen dituzue-noi ere!

Pestetan urtero bezala gozatuko ahal izanen dugu Leitzan herriko dantzarien emanaldiekin baina ez ahaztu ikuskizun horien atzean jende mordo aritu izanen dela ilusio guztiarekin denbora askoan lanean. Etorkizunean gure ondorengoek dantzari eustea nahi baldin badugu, Nahia eta Nerea bezalako jendea beharko dugu transmisioan lanean. Zorionak eta milesker urteetan lan honetan aritu diren guztiei, dantza-erakustunei eta era batera edo bestera herriaren ondare hau zabaltzan lagundu duten guztiei.

IBERO



GAZAKO NEGAR-HAIZEA

Idazten hasten naizen askotan, denari, sentimendua sortzen duen guztiari idatzi nahi izaten diot, idazle ezjakinarekin seinale, agian. Baina, gaur, eraginik ez duela izanzen jakin arren, amaierarik ikusten ez zaion eguneroko gatazka bihurtu den horri letra batzuk eskaintzea eskatzen dit barrenak. Hortxe bada:

الحرية لفلسطين

Gugandik, maila ezberdinetan urrun dauden Lurralde horietatik ez zaigu jada haize berorik iristen, kiskalgarri den airea baizik.

Gatazka, guda non, irudiak han.

Ukazioaren aurrean

Genozidioaren arima erakusten digute egunero.

Ohitu gaitezen, askotan,

interesatuak diren interpretazioak besterik ez zaizkigu iristen...

Irudi gogorak, bai, hala diogu denok.

Baina, zoritxarrez, irudietara ere ohitu egin gara, ohituarazi egiten gaituzte..

Ezintasuna nagusi da, denon ahotan agertzen da, nahiz eta, erabileraren erabiliaz, ezintasunaren mamia hustu egin den, hildakoak zenbakiak bihurtzen diren horretan harriduraren hitza besterik ez da gelditu.

Negar eginen nuke,

negar egiten dut,

baina aski ez dela badakit ongi.



Nire ezintasuna ere ezin hustuz,
haizeak ibaitik itsasora, beraien lurretan,
zabal ditzala nire malkoak,
bai baitakit benetan sufritzen dutenak,
irudietan desesperaturik agertzen zaizkigun
banakako horiek guztiak direla;
banakako bakoitza eta banakako guztiak...

Ez dut ene burua lasaitu nahi,
eta injustiziaren kontra-kantak zioen moduan,
etxea eta lurra kentzen dieten guztiei,
hitz soil hauez, behintzat,
defendatzen saiatuko naizenaren aitortza
egin nahi dut hemen.

Bihoakie, besteak beste, besarkada bero bat.
Besarkada huts batez ez da soluzio-biderik aurkituko,
horregatik hitz galdu hauek lagunduta,
haize erreak kiskaldu aurretik,
hemen egiten dugunaz gain,
eta egin beharra dugu,
indarraren eta itxaropenaren airea bihoakie.

Gerra eten! Gerrarik ez!-oihukatu nahi dut.
Oihukatu nahi dugu
Dударik ez dut, dudarik ez dugu.

Mikel Illarregi

BASERRIKOA, JASANGARRIA ETA JUSTUA

Aurtengo lehen hilabeteetan lehen sektorea izan dugu protagonista nabarienteko bat agenda publikoan. Bi irudi azpimarratu nahi nituzke: batetik Europa osoko hiriburuetan eta, baita Euskal Herrian ere, egon diren nekazarien protestak- traktoreekin kasu gehienetan- nahiz eta bestelako eszena batzuk ere ikusi diren, eta bestetik, herri mailan emakume artzaiei egindako aitortza ekitaldia.

Bi irudi hauek txanpon beraren bi aldeak erakusten dizkigute. Leitzako emakume artzainei egindako omenaldian larrosoñoaren irudi poetikoa erabili zen baserriko ogibide eta bizibidearen bi aldeak irudikatzen. Edertasunari lotutako ezaugarriak batetik, hots, askatasuna, familia, arnasa, lurrarekiko lotura. Arantzak bestetik: babes falta eta honek ekarritako lana, zama eta nekea.

Azken honi heldu nahi diot oraingoan. Egia da lurrari lotutako lanbide hau ederra ez ezik ezinbestekoa dela gizarte osoarentzat: elikagaiak ekoizten ditugulako eta ingurumena kudeatzen dugulako. Bizitzarako oinarritzakoak diren bi zutabe hauek aukeratutako ereduaren arabera modu jasangarriagoan edo kaltegarriagoan maneja daitezkeelarik.

Ezinbestekoa eta estategikoa izanagatik, ordea, lanbide honetako aktore nagusiak, nekazariak, azken hamarkadetan bereziki ez gara izan zainduak dagokigun merezimenduarekin. Elikagai ekoizpenean, beste hainbat arlotan bezala, mundu mailako merkaturak mugitzen duen arau nagusi bat gailendu baita: janari

asko eta merke ekoiztea, albo kalteak kontuan hartu gabe. Eta galeretaz hitz egitean jasandako kalte soziala azpimarratu nahi dut: hemen eta Europa osoan baserri eredu tradizionala eta nekazari ttiki gehienak desagertzea eta eskala handiko granjak eta finkak nagusitzea. Desagerpen horren arrazoi nagusia duintasunez bizitzeko zailtasuna izan delarik, ez lanbidea bera.

Gaineratu behar da, bestetik, prezio bajeen politika konpentsatzeko sortu zirela 70eko hamarkadan Europatik datozen PAC diru laguntzak. Gure etxaldeak kiebra egoera batean ez sartzeko mekanismo bat izan dira hauek. Baina honek guztiak ere ez ditu gure ezintasunak eta estuasunak konpondu. Diru-laguntzek arintze bat dakarte, baina hauek banatzeko erabiltzen diren irizpide injustuek gehiengoari ez diote bizimodu duin bat bermatzen. Prezio bajeak eta laguntzekiko menpekotasunak lan zama handiagoa edukitzea ekarri diote baserriari, sarri autoesplotazioan oinarrituz bere biziraupena.

Testuinguru hau oraindik gehiago zaildu duten beste bi elementu gehitu behar dira: kanpotik ekartzen diren elikagai merkeek egiten diguten lehia eta azken urtetan kostuetan eman den gorakada, marjenak gero eta estuagoak bilakatuz. Faktore hauek guztiek denoi eragiten digute modu batez edo bestez. Bizimodu duin bat lortzeko ezintasun honek eta etorkizuna kolokan ikusteak ekarri dute milaka nekazari kalera ateratzea azken hilabete hauetan.

Eta zein da soluzioa egoera zail honen aurrean? Mobilizazioen deitzaileek arazoan jatorriaz irakurketa bera egin ez duten bezala, irtenbideak ere ez dituzte kokatu norabide berean. Euskal Herrian elikadura burujabetzaren alde eta nekazaritza iraunkorraren alde ari garen eragileok, tartean Habelartek, defendatzen dugu egoera korapilatsu honetatik ateratzeko dagoen bide bakarra elikadura mundu mailako merkataritzatik ateratzea eta berriro tokian tokikora bueltatzea dela. Hau da hemen hemengoa jatea eta hemengo jan beharrak asetzeko behar dena hemen gure lurraldean, kasu honetan Euskal Herrian, ekoiztea kanpotik hemengoa osatzeko behar dena bakarrik ekarriz. Aldi berean nekazaritza eredu iraunkorraren alde egiten dugu: eskala ttiki-ertainekoa, dibertsifikatua, lurra eta ingurumena zainduko duena, nekazariontzat zein kontsumitzaileentzat prezio aldetik justua izango dena eta familia nekazaritzari etorkizuna bermatuko diona.

Honek guztiak egun dugun elikadura ereduaren errotik aldatzea eskatzen du, bai ekoizpenean, baina baita kontsumo arloan ere. Eraldaketa horrek dena beste era batera egitea dakar. Politika publikoak nekazaritzakoak zein komertzialak (merkatuak eta prezioak arautuz) helburu honekin egin behar lirarteke eta diru publikoa modu justu batean banatu beharoko litzateke, ahalik eta nekazari gehien beren lanbidetik duintasunez bizitzea bermatuz eta gutxi batzuk pastel zati handiena pilatzea ekidinez.

Alternatiba eraikitze bide horretan nekazari eta herritarren arteko aliantza eraikitzea ezinbestekoa da. Bien arteko elkarlanerekin baizik ez delako irauliko egoera eta bide horretan Leitzako jaietan aurten ere Habelarteko kideok, herritarren laguntzarekin batera, herri jantokia antolatu dugu Atekabeltzen abuztuaren 10etik 14 ra. Aurtengo karta bere osotasunean Mendialdeko hainbat baserriarren elikagaiekin osatu dugu. Ogitarteko eta taloez gain errazioak ere egonen dira aukeran. Beraz, herritarrek animatzen zaituztegu festetan ere gure baserrietatik elikatzea, modu jasangarrian egindako elikagaiekin eta bi aldeentzat justua den prezioan. Hau delako baserriarrok egin dakigukeen aitortzarik hobereana.

GOTZONE SESTORAIN (HABELARTE)



Emakume baserritarrei bihotzez



Gogoan zaitut amona, oraindik zure usain berezia usain dezaket. Barnean daramadan altxor handiena baserrian bizitza izan da. Egunero emakume baserritarren esentzia bizi izan dut.

Zure eskuek hitz egingo balute...

Oroitzen naiz, txerria hil eta laisterka odoletan nola sartzen zenituen eskuak, odolki eder haiek egiteko.

Oroitzen naiz, ardiak jetzi eta zapore hain berezia zuten gazta beratu haiek egiten zenituen garaiaz.

Oroitzen naiz zure mantalaz, laukiz betea, azpian beti gona, belatxoan gora, eskuarea hartuta. Indartsu eta apain.

Oroitzen naiz, jostorratza eta haria hartu eta arropak berriro beste bizi bat hartzen zutenekoa.

Oroitzen naiz, festa aurrean, mendira joan eta ardi zaharra ekartzen zenuenean, ardiarekin tripotxak egiten zenituen, festa egunak ospatzeko.

Oroitzen naiz, nola kontatzen zenizkidan, zaindu zenituen pertsona guztien istorioak, benetan garrantzitsuak zuretzat, zenbat lan izan zenuen amona, baina zenbat balore zenituen barruan, ederra da urteetan istorioak bizirik jarraitzea. Zurekin ikasi nuen gauza txikiei balioa ematen.

Oroitzen naiz zure besoetan, zure magalean sentitzen nuen beroa, hainbeste lan egindako eskuak, goxoak eta ximurrak, nola babesten ninduten.

Zu joan zinen baina amak hartu zizun erreleboa, emakumea izan baita baserria zutik mantendu duen enborra.

Ez dezagun ba bizitzaren oinarria dena ahazten utzi. Jarrai dezagun benetan garrantzitsua denari garrantzia ematen eta gure ondorengoei transmititzen.

Baserria dela bizitzaren oinarria, elikatzen gaituena, gaur egungo erritmo azkarra geldiarazteko ispilurik handiena. Bizitzaren taupadak sentituz norbera eta besteak konektatzen gaituena. Iragana, oraina eta etorkizuna.

Bihotzez eskerrak amari, amonari eta urteetan isilean gorputza, burua eta bihotza lurrari eman dioten emakume guztiei.



AITZIBER ALDUNTZIN

BOLLOTOPAKETAK LEITZAN: argi eta ilunak

Apirilaren 26tik 28ra Bollotopaketak ospatu genituen Leitzan. Guretzat garrantzitsuak ziren gai askori heldu genien, eta Euskal Herrian zehar sakabanatuak gauden bollarak elkar ezagutzeko aukera paregabea izan genuen.

3 egunetan zehar denetik egin genuen; eztabaidagaiak landu, tailerrak burutu, erakusketak, parranda pixka bat, barreak, negarrak... esan bezala, denetik egin genuen. Larunbatean, dela 40 urte egin ziren Euskal Herriko lesbianen lehen topaketetarako antolatutako zuzenbideekin solasaldia izan genuen, TERF mugimenduaren kontrako Euskal Herriko borroka eztabaidatu genuen, bollera identitateek landa eremuan dituzten bizipenez jardun genuen, eta mahai-inguru zentratean bollera subjektua definitzen saiatu ginen. Ondoren boterea eta sexualitatearen inguruko tailerra egin genuen, etxebizitzaren aferari eutsi genion, gure arteko indarkeriaren inguruan hausnartu, eta gutako batzuk drag tailer bat egiten genuen bitartean, beste batzuk zahartzaroaren inguruan hausnartu genuen. Lan guzti hau eginda, hain bero jaso gintuen Leitzako herrira atera ginen, kalejiran, eta 3 opilen plaza berrizendatu genuen, herritarrekin txanpainaz beteriko kopekin topa eginez, Leitzako bollerei leku egiteko asmoz.

Igandean plazan azoka jarri genuen, eta azken tailer eta mahai-inguruei leku egin genien: Palestinako afera eta borroka, familia nuklearrekiko erresistentzia planteamendua... eta Leitzako herritar talde baten egindako paella zoragarria bazkaldu genuen. A ze mimoa, hainbeste lan egin eta gero horrelako opari bat jasotzea.

Egindako lan autogestionatu honek, poso oso ona utzi bazigun ere, egon ziren ere bestelako min eta zauriak ireki zizkiguten hainbat momentu. Heteroarraren disidentzian kokatzen garen pertsonok ondo dakigu gure bizi erabaki eta ereduak deserosoak direla askorentzat, jendarte eredu honetan arrakalak sortzen ditugu, eta egunero bizitzen ditugu gure kontrako edonolako erresistentzia keinuak. Gu ahaldunduta gauden kolektiboa gara, eta aurrez aurre begiratzen diegu erresistentzia forma ezberdin horiei. Kasu honetan, Leitzako Bollotopaketetan, nahiz eta

herritar askoren babes eta berotasuna sentitu dugun, esan beharra dugu ere, gure kolektiboaren kontrako hainbat eraso fisiko nahiz berbalak bizi izan genituela. Gorrotozko ekintzak izan ziren, zenbaiti ez zaio atsegingarri gure existentzia, Leitzan bolleren arteko topaketa batzuk egitea. Eta hori indarkeria erabiliaz erakutsi ziguten, beldurtu nahi izan gintuzten, ezkultura itzultzea eskatu ziguten.


Argi adierazi nahi dugu gu hemen gaudela, bizi gara, eta ez gara inora joango. Euskal Herriko bollarak gara, eta mundu aske hori iritsi bitarte lanean jarraituko dugu eragile ezberdinekin, gorrotozko jarrera guzti hauek gainditu arte. Mila esker gure alboan egon zareten guzti horiei, bai baitakigu ere hau egitea zenbaitetan ez dela erreza eta kostu bat duela. Ez dugu onartzen inolako eraso sexista LGBTIQ+fobikorik, ez hemen eta ez inon.

Horregatik kronika txiki hau helarazi nahi genion Leitzako herriari. Alde batetik oso eskertuak gaudela berriro ere esan nahi dugulako, baina baita ere oraindik egiteko lan asko daukagula adierazi nahi dugulako. Egindako erasoek min eman digutela jakinarazi nahi dugulako, eta min hau kolektibizatuz, honen berri emanaz, min gutxiago egiten duelako, ardurak hartu behar direlako.

Ea hurrengo bollotopaketetan halakoen berri eman beharrik ez dugun.

Gora borroka transfeminista!

EGILEAK: BOLLOTOPAKETEN ANTOLAKUNTZAKO KIDEAK



NOLA JOKATU ERASOEN AURREAN

INTENSITATE BAXUKOAK

Eraso bat
identifikatu duzu

Erasotuak laguntza
behar du?

EZ

Ez insistitu

**Baliabideak
eskaini**

(Informazio txartelak)

INTENSITATE ALTUKOAK

Deitu
112
edo

Arreta telefonoa
621 160 038

BAI

1. Egiten ari zarena utzi

2. Entzun

Ez jarri zalantzan esandakoa

3. Laguntza eta baliabideak eskaini

Informazio txartelak

Ondoren...

Arreta telefonora deitu/idatzi

Erasoa erregistratzeko: zer non noiz

Arreta telefonoa:
621 160 038

EMAGINEN ESKUTIK ARRETA ZERBITZUA EGONGO DA PESTA GUZTIETAN ZEHAR

Ordutegiak:

Abuztuaren 3an (Repartoa) 20:00tatik 08:00etara

Abuztuaren 10eko 20:00tatik 16eko 10:00etara

Telefonozko 24h-ko zerbitzua

Abuztuaren 10 eta 12an

20:00tatik 00:00tara Informazio gunea plaza

00:00tatik 08:00tara aurrez aurreko arreta

**Leitze leku seguru bat
izatea denon ardura da!**

ERASOEN
AURKAKO
MAHAIA



ONGI PASATU LEITZAKO PESTAK!



Kaxkabeltzako elkartekide guzien izenean...

ADI AKADEMIA Tel: 680273544
ANE EGIZABAL FISIOETXEA Tel: 948 510730
AINART ILEAPAINDEGIA Tel: 948 510197
AITZIBER BERGARA MASAJISTA Tel: 646568753
ALLIANZ ASEGUROAK Tel: 948 510490, 657603435
AMAIA ARRAINDEGIA Tel: 948 510590
ANIKOTE LEITZA Tel: 948510719, 623266582
ANTEK ENTRENAMENDU PERTSONALIZATUA Tel: 671372662
ARIZTELA Tel: 948 610611
ARZALLUS HARATEGIA Tel: 948 510377
ASTITZ LIBURUDENDA Tel: 948 510262, 638012084
BELARRA BELARDENDA Tel: 948 510192
BI PAUSO OINETAKO DENDA Tel: 948 513611, 680187853
BIXIGARRI FRUTERIA Tel: 677345496
CATALANA OCCIDENTE Tel: 948 610685
EDR GUNE Tel: 669695167
ERBITI FARMAZIA Tel: 948 610636
LARRAYA FARMAZIA Tel: 948 510599
PLAZA FARMAZIA Tel: 948 510032
FRUITUAK ZE GOXO Tel: 948 610612
GARBI DROGERIA Tel: 948 510173, 626823104
GAZTELU ITURGINTZA Tel: 948 510086
GOXOGUNE Tel: 661543953
HERNANDORENA BURDINDEGIA Tel: 948 510055, 650255863
INAXIO PERURENA KIROMASAJISTA Tel: 649302307
IZASKUN ESTETIKA ZENTROA Tel: 638306110




Comercios
de Navarra
Nafarroako
dendak

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra
Diruz lagundutako jarduketak


LABORAL
kutxa

**TIBURTZIO DONEAREN PESTAK
ONGI PASA!**

KAPRITXO Tel: 619450249
LEITZA GARAJEA Tel: 948 510466
LEITZA KIROLAK Tel: 948 610976
LIRAIN JANTZIDENDA Tel: 676737856
MAIMUR LIBURUDENDA Tel: 948 510146
MOKADUTXO Tel: 657774641
MUSUNZAR Tel: 747406968
OGI BERRI Tel: 948 610974
PERURENA HARATEGIA Tel: 948 510164
KAMPERBIDE Tel: 669707916
THE BARBER LEITZA Tel: 613149429
TXOKOSFERA Tel: 679699533
AZTIETA LANDETXEIA 948510357, 650974219
301K Tel: 620810803
IBARLUZEA HARATEGIA Tel: 619450249
ZORTZIKO Tel: 948 510720, 618608209



**ESKERRIK ASKO
LEITZAN EROSTEAGATIK!!**



miara
leapaindegia

Makilaje saioak ere egiten dira, aurrez hitzartuta

pesta onak pasa!

Kale Nagusia, 1 Behea
20492 Berastegi

tel. 943 683 697



LEIMEN

ERA GUZTIETAKO ELEKTRIZITATE LANAK

JAI ZORIONTSUAK DENOI!

LEITZA ☎ 628 725 396 (Argoitz)
MENDILLORRI ☎ 628 725 397 (David)

HERLIZ LEITZA
Hernandorena Saizar, Jon Ander
646 020 596
Lizarraga Lazcano, Julen
616 491 126

Reformas Vicente

Maxi Vicente

**Ongi pasa
pesta!**

606307810
maxivicente1@hotmail.com
C/Amazabal 17-2ºA
Leitza

Gosariak, ogia, pastelak, pastak, tartak...



Pesta onak pasa!



FONTANERÍA

**DANI
ITURGINTZA**

ITURGINTZA GASA BERKUNTZA
672 18 31 99
iturgintzadani@gmail.com
LEITZA

ONGI PASA PESTAK!

**GURATZ-MENDI
ELKARTEA**

Ongi pasa pesta!



Landa Behekoa, 4 · LEITZA

**ULI-ZAR
ELKARTEA, S.L.**

iturgintza · calefazioa · gasa-gasoila
komuneko osagarriak · altzariak eta manparak

☎ 647 525 516 / 689 701 557
Bide-Ondo etxea · ARESO · Elgoien, 10 bajua LEITZA



**PERITZA
TABERNA
PESTA ONAK PASA!!**



AISLAN-LEITZA S.L.

poliuretanozko babes eta injekziozko isolaketa

☎ 618 915 943
Santa Luzia pas., 4 B behea · Buztintxuri · IRUÑA

Leitzako **gasolindegia**

RAFAEL MUGICAREN ALARGUNA

☎ 948 510 057

erosle supermerkatua

Gora San Tiburtzioak!



☎ 948 510 007 / 948 610 657 · LEITZA

Arritxenea

APARTAMENU
RURALA



607 655 061
678 477 528

Elbarren, 16
LEITZA

PESTA ONAK PASA!

www.arrantxenea.com

Peluquería
Eguzki
Ileapandegia

☎ 628460603

Lidia Bildarraz
C/Elbarren 34,1A
Leitza 31880

✉ lidiabildarraz@gmail.com



MAPFRE LEITZA

Gerardo Arrupea Plaza

ongi pasa pestak!

☎ 948 510 499 · garrupe@mapfre.com



BEATRIZENEA

taberna · jatetxea

menua · otartekoak · kaxuelitak · pintxoak

PESTA ONAK IGARO!

☎ 948 510 991 · Mikel Deuna, 2 · LEITZA

MENDIGORRI ELKARTEA

pesta onak igaro!

Patxi Arrazola · Leitza

LB

landa-berri

DAIKE


obrak · etxebizitzak · erreformak · aurrekontuak · proiektuak

☎ 688 911 229 / daike@hotmail.com

pesta onak izan

Urto

karrozeria



TXAPA ETA PINTURA KONPONKETAK

JESUS AZURMENDI JAUREGI

ONGI PASA
SAN TIBURTZIOAK!

☎ 943 683 499 / 948 610 664
Kamineros etxea · BERASTEGI

Pintura lanak
orokorrean

MELO
pintura lanak

☎ 609 873 178 · LEITZA



Done Mikel, 1
☎ 948 610 909

eta zabalik!



JEIKI ABESBATZA

☎ 606 393 842

jeiki.leitza@gmail.com

f jeiki abesbatza

@ jeiki_abesbatza

Gora Santiburtzioak



BULDAIN
inmobiliaria

FESTA EDER HAUETAN
ZUEN NAHIAK BETE
DITZAZUEN OPA DIZUET

PESTA ONAK PASA!

<http://buldain.blogspot.com>

☎ 948 510 534 / 649 476 615 · LEITZA

Javier Razkin
ASEGURUAK

Ongi pasa pestak!

☎ 948 510 338 / 674 745 563

Obispo Uharte, 8 behea · LEITZA

ARIZTIMUÑO ANAIK
ERAIKUNTZAK

Lan orokorrak eta berrikuntzak

ONGI PASA PESTAK!

☎ 948 510 202 / 948 510 374 · LEITZA

ORAIN ELKARTEA

Jai zoriontsuak opa dizkizue
herritar eta bisitari guztiei

LEITZA

Gaztañaga
taberna

OTARTEKOAK · PINTXO BEROAK · KAXUELAK

☎ 948 610 708

ongi pasa pestak!

Dabid Barriola **TAXIa**

9 PLAZA



Tel. 679 71 51 69 LEITZA

E-mail: dabidtaxia@gmail.com

LEITZALARREA S.L.
aroztegi metalikoa

☎ 948 510 598 / 669 368 991

Landa industrialdea, 20 · LEITZA



ORDUTEGIA
astelehenetik larunbatera
09:00-21:00 irekita

☎ 696 703 638



Landa poligonoa · Leitza

DENAUTO SAGASPER TAILERRA

AUTO KONPONKETA



Eluserder Industrialdea
Poligono Industrial Eluserder

Tel.: 948 510 610
Faxa: 948 510 917

31876 ARESO
(Nafarroa)



☎ 948 610 888 / 630 048 770 · Fax: 948 610 863 · Eluserder industrialdea, 1 · Areso (Nafarroa)



bilagunleitza@hotmail.es

Tel./Fax: 948 610 985 · Iñurrista Industrialdea / P2 · LEITZA



KONTABILITATEA
ZERGAK
AUTONOMOAK
ENPRESEN SORRERAK
ERRENTA AITORPENAK
AHOLKULARITZA JURIDIKOA
NOMINAK, KONTRATUAK,
ESKRITURAK TRAMITATZEA: HERENTZIAK,
LOKALAREN SALEROSKETAK...



Nutrizio orokorra · Kirol nutrizioa · Elikadura hezuntza ·
Intolerantzia eta alergiak
LEITZA / IRUÑEA

☎ 689 381 992 (Ibarr Zabaleta)
izate.nutricion@gmail.com
izatenutri.com

ONGI PASA PESTAK!!

Arantxa

ILEA PAINDEGIA

GORA
SAN TIBURTZIOAK!



☎ 948 610 931 · Huarte Gotzaina, 8

LEITZA: Landa Ind, 18-1. pisua · T. 948 510 990

DONOSTIA: Tolosa hiribidea, 5-2 · T. 943 420 348

📧 info@kide.eus · izaskun@kide.eus · www.kide.eus

tantada
iturgintza



Imanol Echeverria 680 255 718
tantadaiturgintza@gmail.com

AIRE EGOKITUA
ITURGINTZA OROKORRA
AEROTERMIA
EGUZKI PLAKAK
LURREKO SUAK

EGURREZKO GALDARAK
PELETTEKO GALDARAK ETA ESTUFAK
BIOMASA
ZORU BERO-EMAILEA
GREMIOEN KOORDINAZIOA

Kornieta
elkartea

Ongi pasa
San Tiburtzioak!

LEITZA

ORTIZ
FERRETERIA - PENTSUAK

Pesta onak
pasa!

Tel. 948 513 600
Landa industrialdea, 13
31880 LEITZA (Nafarroa)



BITXILORE
LOREDENDA
655705200
LEITZA

Asador Jatetxea



Galartza III

31879 BARAIBAR (Nafarroa)



Pesta zorionsuak opa dizkizue!

Tel. 948 504 456 / 948 504 387
asador@galartza.com
www.asador.galartza.com

**CARLOS
SAGASTIBELTZA
VILLANUEVA**

ARKITEKTU TEKNIKOA
ARQUITECTO TÉCNICO



Landa Ind. - Landa eraikina Tekn.
LEITZA
948 610 684 | 629 611 912
sagastibeltza@coaatnavarra.org



TALLERES

Ireber S.L.

ONGI PASA PESTAK!

MANTENIMENDU PREDIKTIBOA
INDUSTRI MAKINERIAREN MONTATZE ETA KONPONKETA

Landa Industrialdea - Pab. 9B - 10B Leitza
Tel. 948 510 842 - 639 134 464 - Fax. 948 510 843



ARANTXA
taxi zerbitzua



660794326



arantfaxaxia@gmail.com

Ezinduentzat egokitua
9 Eserleku

- | Etxebizitza berriak
Edificaciones nuevas
- | Eraikinak zaharbertitza
Rehabilitación de edificios
- | Zurezko solairu eta teilatuetan espezializatua
Especializados en suelos y tejados de madera
- | Diru-laguntza eskaerak bideratzeko aholkularitza
Asesoramiento en tramitación de ayudas económicas
- | Energia aurrezteko fatxadak
Fachadas para ahorro energético
- | Igogailuak jartzea
Instalación de ascensores
- | Konpromisorik gabeko aurrekontuak
Presupuestos sin compromiso



PERURENA HARATEGIA

1974

le
i
t
z
a
r
r
a

taberna

*ongi pasa
pestak!*

Pintxo eta ogitarteko
aukera zabala

☎ 677 721 688
Uharte Gotzaina 2, LEITZA

Atsedeen Gozo

GOZOTEGIA



Goxokiak, opilak, hot dog-ak, hamburgesak,
bokatak, patatak, edariak...

Ondo pasa
SAN TIBURTZIOAK!!

☎ 722108621



Saralegi

T A L O A K

Bertakoa, naturala, goxoa!



T. **610 378 543** Arro baserria - Leitza saralegitaloak.eus

Festa zoriontsuak opa dizkizuegu

LANDA HOSTALA

jatetxea



HOSTAL RURAL

restaurante

Lopenea

PESTA EDERRAK PASA!!!!

688640834

EREGI

Herri Lan eta Zerbitzuak · Obras y servicios

Landa Industrialdea, 2 · LEITZA

info@eregisl.com

Landa industrialdea, 2 · LEITZA

info@eregisl.com

PESTA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE



Leizako Udalak

PESTA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

leitzarrei, bisitariei eta gurekin
egon ezin ahal izanen duzuen guztiei.

PESTETAKO GASTUEN ZERRENDA 2024KO AURREKONTUA

PLAZAKO MUSIKA	39.129,15 €
DJ MIKELTXI	605,00 €
ITZAL	2.178,00 €
ALARMA MOREA	955,90 €
SODADE + LUR SOINUA	3.630,00 €
LOS TENAMPAS	6.655,00 €
ESNE BELTZA	20.000,00 €
TRIKIDANTZ	2.770,00 €
3INDARROCK	960,00 €
TOKEN2	725,25 €
KUXKUXTU	650,00 €
BESTELAKO MUSIKA	14.232,00 €
INCANSABLES	10.800,00 €
EZPELUR	1.200,00 €
BERTSOLARIAK	2.232,00 €
KIROLAK	10.100,00 €
HERRI KIROLAK	4.600,00 €
ADOS-EN PILOTA PARTIDUA	1.000,00 €
ABUZTUAREN 12-KO JAIALDIA	1.200,00 €
BAIKO-REN PILOTA PARTIDUA	3.300,00 €
JOKOAK	14.810,00 €
UR TXIRRISTA	2.450,25 €
SUZKO ZEZENA	1.800,00 €
JOKAI	1.250,00 €
GOXOKIAK ETA APARRA	1.000,00 €
ZEZENAK	23.440,00 €
ARKITEKTURAREN ZIURTAGIRIA	200,00 €
ENRIQUE DOMINGUEZ GANADUTEGIA	10.890,00 €
GIZARTE SEGURANTZA	320,00 €
HONDARRA BILTZEKO MAKINA	800,00 €
HONDARRA ETA PORTEA	1.600,00 €
MAPFRE	1.500,00 €
MEDIKUA ETA ANBULANTZIA	7.380,00 €
UKUILUAREN ALOKAIRUA	350,00 €
OTORDUAK	10.000,00 €
HERRI APARIA	3.000,00 €
JUBILATUEN BAZKARIA	1.000,00 €
OTORDUAK	6.000,00 €
PROGRAMA	3.325,00 €
LIBURUA	3.175,00 €
LEHIAKETAREN SARIA	150,00 €
BESTELAKOAK	9.321,54 €
ARGI INDARRA	1.000,00 €
GARBIKETA	2.000,00 €
KOMUNAK	2.146,54 €
SGAE	3.000,00 €
ARALAR MUSIKA ESKOLAKO TEKNIKARIA	1.175,00 €
GUZTIRA	115.647,94 €

Jaietan ere LGTBI+

Festek sozializatzeko era garrantzitsua dira, aisialdirako eta dibertitzeko garaia; nahitaezkoa da balioan jartzea eta aniztasun sexuala eta generokoa ereitea berdintasunezko gizarte bat sortzeko.

Pertsona guztiak berezi eta errepikaezinak gara.

Aniztasunak aberasten gaitu!

www.igualdadnavarra.es

Subvenciona / Lagunduta:



KATTALINGUNE LGTB+
Servicio Público del Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernuako Zerbitzu Publikoa

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua



Instituto Navarro para la Igualdad



Nafarroako Berdintasunerako Institutua

Gehien erakartzen nauena?

Ezer ziurtzat ez jotzea.



LEITZAN

Gozatu, partekatu eta errespetatu



#PrebentzioNeurriakErabili
#PresiorikEtaGezurrikEz
#EtiketarikGabekoMaitasuna



**Leitzako
Udala**

Gobierno
de Navarra  Nafarroako
Gobernua

